

**XX. mendeko gerrak
blogetan**
Aitonaren batailek
milaka irakurle dituzte

▣ *Ezpalak*
▣ *Argitalpenak*

▣ *Denbora-pasak*
▣ *Makina bat kontu*

Thesi
Amerika
bizikleta gainean

ARGIA

erdiko kaira

kultura eta aisia

Karelean

56. gelako atepak zabalik

56 gela dituen etxeak handia behar du izan, zabala, jauregi bat. Jauregiak atea eta atepak aretoa atzean. Han aurkitu ditugu Karelean taldeko kideak instrumentuak afinatzen. Gaztelupeko Hotsak zigiluaren eskutik argitaratu berri dute *56. gelatik* lehenengo diskoa. Azpeitiko Lobo estudioko sukaldean joan den azaroan ondutako kantuek joera ugariaren oihartzunak dituzte, pop finetik hasi eta jazz dotoreraino, elektronikari eta rockari atepak itxi gabe. Bost musikari hauei gelako atea parez pare zabaltzea gustatzen baitzaie, doinuak urrutira entzun daitezten.



Kantu sotilak neguaren ertzerako

GORKA BEREZIARTUA

Argazkiak: Karlos Corbella

NEGUKO ARRATSALDEA, Azpeitiko (Gipuzkoa) gaztetxea. Uztarrria kultur koordinakundearen 10. urteurrena ospatzeko jaialdia antolatu dute. Karelean taldeko kideak soinua probatzen ari dira. Badirudi mikrofono bat mutu geratu dela, soinu teknikaria aurrera eta atzera dabil. Ez du arratsalde samurra izango Zestoa eta Azpeitiako boskoteak ere, ekipoa prest utzi ondoren ia ordubetez luzatuko den galdeketa jasan beharko baitute gaztetxearen ondoan dagoen Laratz kafetegian. Hamar kantu ditu taldearen aurreneko diskoak, horietako hiru ingelesez. Horren zergatia jakin nahian luzatu diegu lehen galdera.

Natural atera al zaizue?

Olatz Prat: Diskoko hiru kantuk Patxi Zabaleta, Xabi Borda eta Xabier Leteren hitzak dituzte; besteak nik egin ditut. Musikaren aldetik limitarik jarri ez dugun bezala, hizkuntzarekin ere ez genuen mugarik nahi. Sortzerakoan euskara irtezen zait musikak esaten didanaren arabera, baina batzuetan nota batzuk ateratzen dituzu eta ingelesezko hitzak etortzen zaizkizu burura.

Joseba Illarramendi: Geure artean ez dugu hitz egiten horretaz, Olatz hasten den hizkuntzan lagatzen dugu.

O. Prat: Ideia bat ematen dit musikak eta pentsatzen dut, “nola espresa dezaket hori hobeto, euskaraz edo ingelesez?”. Batzuetan bat, besteetan bestea aukeratu dut. Frantsesarekin ere ibili ginen tentatuta.

Kantu batzuk diskotik kanpora geratu zaizkizue?

Raul Olaizola: Bai, lau urte dira elkartu ginetik eta kantu pila joan da bidean gelditzen. Momentu bat heldu da eta esan dugu “hauei heldu eta landu egingo ditugu”.

Biti Tena: Kontua ez da izan abesti konpleto bat egin eta azkeneko momentuan baztertu dugula; kanpoan geratu direnak ez ditugu boro-bildu.

J. Illarramendi: Badaude batzuk zuzenean jotzen ibili eta sartu ez direnak, beti dago aukera beranduago berreskuratzeko.

Soinuaren erabilera deigarria da. Berezko presentzia du, folkloretik urrundu duzue.

B. Tena: Diskoko kantuek ezaugarri komun bat baldin badute, hori soinua dela uste dut. Beste taldeetatik desberdintzen gaitu.

J. Illarramendi: Eskusoinua beste instrumentu bat da, gitarra bezala, kontua da ez gaudela ohituta estilo honetan entzuten, eta trataera hau ematen. Edozein instrumenturekin era askotako moldaketak egitea dago, baina hemen ohituta gaude instrumentu hori lotzera musika estilo batekin. Horrek ez dauka zertan horrela izan.

Pop-rock taldeetan ez da ohiko instrumentua.

O. Prat: Beharbada teklatua lehenago erabiliko da...

J. Illarramendi: ...edo pianoa, muga hori gaindituta daukate eta horregatik ez dira erlazionatzen pianoaren jatorrizko musikarekin. Baina Euskal Herrian soinu txiki diatonikoak “triki” izena hartu du, hankasartze izugarria: ez da “triki”-a, eskusoinu diatonikoa da, eta zuk horrekin nahi duzuna egin dezakezu.

“Euskal Herrian soinu txiki
diatonikoak ‘triki’ izena hartu du,
hankasartze izugarria: ez da
‘triki’-a, eskusoinu diatonikoa da
eta zuk horrekin nahi duzuna
egin dezakezu”

JOSEBA ILLARRAMENDI (ESKUSOINUA, AHOTSA)

R. Olaizola: Beste talde batzuetan soinua hor dago, eta gainontzeko instrumentuak joaten dira harengana. Gure kasuan juxtu kontrakoa da, taldea dago eta soinua etortzen da gugana.

J. Illarramendi: Taldea soinuan oinarritzen denean, egia da folk ukituko moldaketak egiteko joera dagoela, eta taldeak estilo horretara hurbiltzen dira. Gure kasuan soinua tratatu dugu biolin bat, piano bat, gitarra bat edo dena delakoa bezala.

Moldaketetan asko zaindu dituzue detaileak.

Moldaketetan asko zaindu dituzue detaileak.

Aitor Korta: Grabatzen ari zarean ideiak etortzen zaizkizu eta denbora piloa eduki dugunez, lantzeko lasaitasuna izan dugu.

J. Illarramendi: Denborak asko eragin du, eta noski, ideiak ere eduki egin behar dituzu.

R. Olaizola: “Kortxo”-k [Aitor Korta] badaki kantuei indarra non eman eta gu saiatu gara berari kasu egiten.



Goitik behera: Joseba Illarramendi (eskusoinua, ahotsa), Biti Tena (baxua), Olatz Prat (ahotsa), Aitor Korta "Kortxo" (bateria) eta Raul Olaizola (gitarra), Karelean taldeko kideak.

B. Tena: Gainera, lagun arteko gauza izan denez eta patxadaz ibili garenez, konfiantza guztia eduki dugu gauza batzuei denbora dedikatze-ko, grabatzeko argi gorria piztu gabe. Askotan etxetik urruti ezagutzen ez duzun jendearekin, gehiago mugatzen duzu zeure burua.

O. Prat: Orduka pagatu behar baduzu, desberdina da.

J. Illarramendi: Dinamika diferentea da: estudio batera joanda ere ondo aritu zaitezke, baina ordukako tarifa baldin badaukazu, zeure buruari presioa sartzen diozu. Guk zortea eduki dugu, lasai eta lagun artean aritzeko aukera izan dugulako.

R. Olaizola: Inprobisatzeko aukera ere izan dugu gainera.

O. Prat: Estudioan bertan itxi dira kantu asko, irekita eraman eta azken ukitua eman diegu.

56. gelatik kantuak zortzi minutu irauten du. Gus-tura ari zineten eta ez zenuten gelditu nahi?

J. Illarramendi: Eta estudioan tentazioa eduki genuen oraindik eta gauza luzeagoa egiteko... Hurrengo baterako igual! [barre egin dute].

Kantu fetitxea al duzue hori? Diskoari izena eman dio.

A. Korta: Maketan ere grabatu genuen. Diskoan bi partetan bezala dago, baina maketan erdia zegoen. Berez horrela zen kantua, gero kontzertuetan hasi ginen inprobisatzen, gustatu egin zitzaigun eta moldatzen hasi ginen.

R. Olaizola: Hasierako ideia moztzen joatea zen. Bateria adibidez, pila bat luzatu genuen eta pentsatu genuen grabatzerakoan laburtu egingo genuela. Gero ikusi genuen gustura geundela emaitzarekin eta horrela utzi dugu.

J. Illarramendi: *Hotzikara* kantuarekin ere berdina pasa zaigu.

Karelean kantuek ematen dio izena taldeari, zergatik?

O. Prat: Gure kantuen artean aurrenekoetakoia izan zen eta kontzertuak jotzen hasi ginenenean izen bat jarri behar genionez, hori hautatu genuen.

R. Olaizola: Hamabost bertsiotan-edo egin dugu. Azkenean diskoan joan dena aukeratu dugu.

J. Illarramendi: Bertsiio elektronikoa da, sorre-ran ere hala zen.

R. Olaizola: Ez dakit hemendik aurrera joko dugun, baina zuzenerako beste moldaketa bat ere badauka.

Grises Sueños taldearekin lankidetzan egin duzue bertsiio elektronikoa hori. Zer moduzko giroa dago Urolako taldeen artean?

J. Illarramendi: Beno, Raul Grises Sueño-seko partaidea da... Oso gaizki eramaten gara [barre egin dute].

B. Tena: Inguruko taldeekin beti dago harremana eta Zestoan beti egon da musika zaletasuna. Horrelako herri txikia izateko musikan nahiko nabarmenak izan gara.

J. Illarramendi: Gero bakoitza bere lokalean egoten gara, baina Grises Sueño-sekin hartu-eman lagun artekoa da.

R. Olaizola: Kontuan hartu behar da 2.000 pertsona bizi garelako Zestoan.

“Sortzerakoan euskara irtete zait musikak esaten didanaren arabera, baina batzuetan nota batzuk jotzen dituzu eta ingelesa ateratzen zaizu”

OLATZ PRAT (AHOTSA)

J. Illarramendi: Baina taldeen arteko lotura handiagoa izan dadin denbora da gakoa. Guk bostok entseatzeko denborarik ez daukagu ia, eta besteekin harremana mantentzea zaila da.

O. Prat: Beno, horrelako gauzetarako elkartzen gara.

Euskadi Gaztearen maketa lehiaketa irabazi zenuten 2006an. Jendearengana iristeko horrelako lehiaketak beharrezkoak al dira?

O. Prat: Bultzada handia ematen diote horrelakoek talde bati: irratietan aditza, komunikabideetan irtetea...

A. Korta: Guri ere eragin digu, gehiago bildu gara, segitzeko indarra eman digu.

B. Tena: Gure artean proiektu honek pisu gehiago hartu du, lan egiteko gogo gehiago eman digu horrelako saria irabazteak. Eta kanpora begira noski, aurkezpen hori edukitzeak lagundu egiten du.

A. Korta: Diskoa grabatzeko ondo etorri zaigu adibidez, Karelean entzunda jendea irabazteko egiten zaiolako. Bere propaganda txikia izan du taldeak. Errazagoa izan daiteke diskoetxe bat zurekin bustitzea.

Diskoetxea aipatu duzue, baina azkenaldian geroz eta gehiago dira autoproduktzioa jotzen duten taldeak. Nola ikusten duzue hori?

J. Illarramendi: Oso ondo, baina guri pixka bat zaila egiten zaigu. Azkenerako lana da, eta gure kasuan ez dut erraz ikusten hori guztia aurrera ateratzea. Gauza askotan diskoetxeak babestu egiten zaitu eta erraztu egiten dizkizu zenbait gauza, bestela geuk egin beharko genituzkeenak.

O. Prat: Eta zortea eduki dugu, Gaztelupeko Hotsaki proposamena egin eta onartu egin zigu-telako.

J. Illarramendi: Horri esker erraza izan da disko-a ateratzea. ■

<http://www.argia.com/argia-astekaria>
helbidean elkarrizketaren pasarteak bideoan.

Artezblai ARGITALETXEAREN AZKEN ARGITALPENAK

FTI - Antzerkiola Imaginarioaren liburuak
8 Olivetti poetiko - Mundopolski, erreboltaren ziaboga
Yuri Sam. Otoitza - Au Revoir triunfadoreak

Yorick Liburudendan edo
www.libreriayorick.com eskura ditzakezu

San Frantzisko, 15ren parean, 48003 - Bilbo / Tel: 944 795 287 / www.libreriayorick.com / info@libreriayorick.com